

Euskal AEko I+G gastuak bioteknologian mailarik gorenara lortu zuen 2017an, %10,1 hazita

Bioteknologiako I+G gastua I+G osoaren %6,8 izan zen; Administrazio Publikoak %56,5 finantzatu zuen

Eustaten datuen arabera, 2017an Euskal AEko I+G barne-gastua bioteknologiarekin erlazionatutako jardueretan 93,2 milioi eurokoa izan zen, 2016an baino %10,1 gehiago. Gastu hori izan zen I+G barne-gastu osoaren %6,8. Langile enpleguak 2.116 izan ziren. DOBn (Dedikazio Osoko Baliokidetzan) 1.346 pertsona izan ziren, I+Gra bideraturiko DOB langileen %7,2. Datu horiek, hala bioteknologiako gastuan nola DOBn aritzen den langilekopuruan, serie historikoaren altuenak dira.

I+G gastua bioteknologian %10,1 handitu zen aurreko urtearen aldean eta DOB langileak %9,0. Ikertzaileak, bestalde, 1.031 pertsona izan ziren (DOB), %6,9ko hazkundearekin.

Aurreko urteetan bezalaxe, emakume ugari daude I+G adar horretan, bioteknologian lanaldi osoan aritu zirenen %59,5 2017an.

Bioteknologia-ikerikuntzan 103 erakunde aritu ziren 2017an; Enpresak sektorekoak ziren haietako 89. Orobat, 103 horietatik, 67k bioteknologiari eman zioten I+G barne-gastuaren erdia baino gehiago.

Barne-gastuaren %63, enpresek egina

Aurreko urteetan bezala, Enpresetan da I+G barne-gastu osoaren portzentajerik handiena (%63,0) bioteknologian, 2016an baino ehuneko 1,4 puntu gehiago (%61,6).

Bestalde, Goi-mailako Irakaskuntzak (%30,6) eta Administrazio Publikoak (%6,4) egikaritu dute 2017ko gainerako gastua (%37,0); portzentaje hori %38,4 izan zen 2016an.

Bioteknologiako barneko I+G: gastuaren eta langileen bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2007-2017

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Barneko I+Gko gastuak											
Guztira (mila eurotan)	80.842	91.583	80.557	87.401	85.941	85.646	92.042	86.677	85.691	84.690	93.221
Urteko Gehikuntza (%)		13,3	-12,0	8,5	-1,7	-0,3	7,5	-5,8	-1,1	-1,2	10,1
Langileak (DOB)											
Guztira (mila eurotan)	779,2	826,8	898,9	1.027,3	1.032,9	1.081,8	1.182,9	1.183,7	1.255,5	1.234,8	1.345,5
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,7	14,3	0,5	4,7	9,3	0,1	6,1	-1,6	9,0
Ikertzaileak (DOB)											
Guztira (mila eurotan)	640,6	679,9	739,7	797,0	752,6	809,8	903,3	909,3	977,0	964,5	1031,0
Urteko Gehikuntza (%)		6,1	8,8	7,7	-5,6	7,6	11,5	0,6	7,4	-1,3	6,9

DOB= Dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. Bioteknologiako I+Gren estatistika

Administrazio Publikoak bioteknologia I+Gren %56,5 finantzatu zuen


Funtsen jatorriari so, bioteknologiarekin lotutako barne I+G jarduerak, 2017an, Administrazio Publikoak (%56,5) eta Enpresek (%28,6) finantzatu zituzten oroz gain. Gainerakoa, Atzerriko funtsek (%9,3), Goi-mailako Irakaskuntzak (%4,9) eta Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek (%0,7).

Bioteknologia-ikerkuntzatik lortutako produktuak, batez ere, Giza Osasunean (%74,0) eta Elikaduran (%8,9) aplikatzen dira. Gainerako arloetan banatzen da beste %17,1a, antzeko portzentajeekin: Ingurumena, Industria, Animalien osasuna eta akuikultura eta Nekazaritza eta baso-produkzioa.

Bioteknologiako I+G jardueretarako oztopo nagusiak, denbora/kostua erlazioa eta kapitalerako irisbidea

Azkenik, 2017an berriz hauek dira oztopo nagusiak bioteknologia-ikerkuntzan garapen-jardueretan aurrera egiteko: denbora/kostua erlazioa (%91,3) eta I+G egiteko kapitala lortzea (%87,4). Arautze-betekizunak hirugarren tokian dira, %79,6rekin.

Bioteknologiako I+G garatzeko oztopoak (%). 2017



Iturria: Eustat. Bioteknologiako I+Gren estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62